



Pili Otaegi "Larraulgo usadioak sendabelarrekin" liburua aurkezten.

Gure aitona-amonon jakinduriari balioa ematen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Nork ez du gogoan txikitari tripako mina zuenean amonak prestatzen zion mantzanila? Edota neguan katarroa harri-patzean amak egindako berbena kataplasma? Askok izango ditugu burutan antzeko pasarteak, baina ziurrenik gutxitan jarri izan gara pentsatzen automatikoki edo ohituraz ateratzen zaizkion erremedio guzti horiek mendeetan, belaunaldiz belaunaldi iraun eta guga-naino iritsi diren jakintzak direla.

Jakinduria guzti hori biltzeko asmo-tan hasi ziren Pili Otaegi eta Larraulgo Dina7 Kultur Elkarteke beste kide bat 2011n herriko aitona-amonak elkarriketatzeko. Orain, *Larraulgo usadioak sendabelarrekin* liburuan bildu ditu Otaegik ikasitako horiek guztiak: "Hasieran baserriarrek zer esan handirik ez zutela zioten, baina behin hizketan hasita bi ordutik gora egoten ginen ia beti", azaldu digu.

Pertsonentzako erremedioez gain abereentzako sendabelarrak ere badatoz liburuan, baita landareen argazkiak ere. Gainera, aitona-amonak beren jakinduria partekatu bezala, Otaegik berak ukenduak, kremak, hortzetako pastak, olioak edota xaboiak egiteko errezetak konpartitu ditu irakurleekin.

Transmisioan etena

Liburuaren prozesuan ikusitakoaren arabera, sendabelarrak erabiltzeko ohitura asko galdu dela uste du Otaegik. Medikuntza tradizionalaren eraginez eta albaitariak baserrietan sartu zirenetik, pixkanaka beheraka egin du betidaniko jakintza horren transmisioak. Etxe batzuk oraindik beren erremedio kuttunen bat gordetzen dute, baina ez da egoera orokorra. "Osina, adibidez, oso erabilia zen lehen baserri gutxitan, adin batetik aurrera maiz hartzeko ohitura izaten zen. Gaur egun, horren ordez, *simtrona* erabiltzen da, dauzkan kalte ondorio guzietan".

Natura irakurtzen ikasteko beharra

Lurrarekin harremana berreskuratzea eta inguruan duguna ezagutzea beharrezko zaigula uste du Otaegik: "Hain da azkarra natura, non gure inguruan sortzen dizkigun behar ditugun belarrak. Landaredia gurekin harreman zuzenean dago, eta gaitasuna du guk behar dugunera egokitzeke", dio. Harreman horretan egungoa baino abilagoa izan zen gure aitona-amonon belaunaldia: haien jakinduriaren aitortzea egitea ere baden liburuaren helburuetako bat. Baina "zenbat zekiten lehengoek eta ze gutxi dakigun orain..." horretan gelditu ordez, jakintza zahar hori guztia berreskuratzeke tresnak emanez. ■

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

[@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Martxoak 22: Goiatz

Dendale ostatuan, 19:00etan.

Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 16: Ubera (Bergara)

11:15ean, lekua zehazteke.

Apirilak 20: Gabiria

Kultur Etxean, 18:00etan.

Udalak antolatuta.

Apirilak 23: Hendaia

Udal aretoan, 18:00etan.

Ondoren otordua Balea elkartearen.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

📞 943 371 545